

SERMOLARIAK: HITZAREN ETA HERRITARREN ZERBITZUAN

Joseba INTXAUSTI

Jose Maria LETE

“Arantzazuko fraideak” (=frantziskotarrak), batez ere sermolari edo predikari bezala ikusi izan dira gure herrietan. Izan ere, edozein komentutatik zetozela ere, horrela izendatu dituzte herritarrek fraideok, Hegoaldeko lau Probintzietan.

Ez da harritzekoa, zeren, historialariek diotenez, iraganean ere Arantzazuko fraideek arretaz zaindu izan zuten Hitzaren predikuaren zeregin hau, eta Santutegiak beti izan ditu bere sermolari edo predikariak.

1. AURREKO SERMOLARITZAREN ARRASTOAN

Iragan mendeetan Euskal Herriko frantziskotarren komentuetan prediku-lanak ongi arautu eta antolaturik egon ohi ziren, eta ez bakarrik, oro har, zeregin hori zinez ardura handikoa zelako, besteak beste baita sarritan herriko Udaletxearekin hitzartutako eginkizuna zelako ere.

Horregatik, orduan komentuetan “sermolari” izendatuak egon ohi ziren, betekizun horretarako bereziki prestatu eta azterketa ofizialak pasatakoak. Fraideen artean, esamina bidezirabazi beharreko

gradua zen sermolaritza, eta ez, beste gabe, edozein fraide apaizi ematen zitzaion ofizioa.

1.1. GARAI BATEKO “PREDIKARIAK” (XVIII-XIX. MEND.)

Sor zitezkeen jarduera berezien ondoan, urteroko sermoi-etaula zegoen, hau da, komentuek herri edo elkarteren batekin (kofradia eta abarrekin, alegia) egun jakinetan zituen konpromiso hitzartuen zerrenda. Eta horrelako hitzarmena zuen, adibidez, Santutegiak Oñatiko Udalarekin: urtero gutxienez 24 alditan jaitsi behar zuen Arantzazuko predikariak Oñatiko San Migel Parrokiara, behar ziren sermoiak egitera, Lizarraldeak esaten digunez. Eta, horretan, ez zen Oñati kasu bakarra: antzeko hitzarmenak zituen Santutegiak, Zegama, Segura, Bergara, Legazpi, Otxandio edo Agurainekin¹.

Hori, esan bezala, alde zuzenetik egitarauturikoa zen, baina prediku-mota ezberdin eta ez arautuak ere ugariak ziren, batez ere herri-misio eta antzeko sermoi-seriatu eta jai edo ospakizun handietan egin behar zirenak. Esan gabe doa, askotan gogorazi izan den sorginen kontrako prediku-lana, esaterako, kasu hauetako bat izan zela, XVII. mendeko lehen

¹ Lizarralde 1950: 237-239.

urteetan, Arantzazuko sermolariak Nafarrako mendialdera bidaliak izan zireneko hura (Arakil, Burunda, Baztan, Bortzirriak)².

Arantzazuko Santutegia ez zen, Zarauzkoa bezala, Misiolari-Komentu berezitua, baina sona zabaleko sermolariak ere izan zituen, Garizumalari bezala batik bat, eta batzuen izenak ezagutzen ditugu (Etxebarria, Goiendi, Letamendi, etab.). Onenak ez ziren, gainera, sermolari soilak, baizik eta aldi berean Santutegian Irakasle ere bai³.

Pastoraltzako lan-molde hau arretaz zaindu zutengaraiko arauak, lehenik "Estatutos Municipales" zeritzatenek (1719) eta horretarakoxe –predikurako, alegia– eratu ziren Etxe berezituak. Izan ere, frantziskotarrek bi halako Misiolari-Kolejio edo Komentu izan zituzten, bata Nafarroako Erriberrin (1745) eta bestea Zarautzen (1746), baina beti predikua bere orokorrean –Misio eta bestelakoetan ere– ongi zainduz.

Santutegiak eta oro har Euskal Herriko frantziskotar guztiek burututako prediku-lanaren agerri ederra da bertako liburutegi-artxiboan jasorik dagoen sermoitegien bilduma aparta. Sermoi-bilduma hauen jatorria ezaguna da: sermolari bakoitzak, bere bizialdian, sermoiak egin aurretik idatzitako eskuizkribuek osatu ohi zuen bere prediku-sorta pertsonala, eta hor daude orain, bilduta hainbat predikariaren lanak Arantzazun, Santutegikoak ez ezik beste zenbait Komentu frantziskotarretakoak ere. Berorren berri liburu honetako hurrengo kapitulu batean izan dezake irakurleak⁴.

XIX. mendeko azken laurdenean, Santutegiko Fraideartea izanberritu zenetik (eta orduan Zarauzko Etxe izanberritua, berriro Misiolari-Kolegio gisara eratu ez zenez), gaionerako Komentuetatik bezala Arantzazutik ere mota guztietako prediku-lanak egin izan dira, herri-misioak barne.

1.2. ORDENA BARRUKO TRADIZIOA

Asisko Franziskok (1182-1226) bere lagunak testigantza eta hitzaren bidez Erreinuaren mezulari izan zitezela nahi izan zuen. Inozentzio III.a Aita Santuak lehen bizi-arauak hitzez onartu zizkionetik bertatik (1209), Anaien berezko egitekoen artean zegoen predikua, Anaiartera ez baitziren sartzen

monasterio itxietan bizitzeko, kristauartean Ebanjelioaren albiste ona aldarrikatzeko baizik. Lehenengo fraide-zortzikotea bildu zen orduko, Anaiak herriarren artean predikatzaera bidali zituen Frantziskok, denak elkarrekin binaka⁵:

Pentekoste-egunetan Anaia guztiak Santa Marian biltzen ziren, eta Erregela nola hobeki gorde elkarriketatzen, eta hainbat probintziatar bidaltzen zituzten Anaiak herriari beren predikua zuzen ziezaioten.

Prediku-eginkizun hau fraide bakoitzarena zen, noski, baina areago Ordena osoarena. Eta, horretarako, Inozentzio III.a eta Honorio III.a Aita Santuen baimena eta agindua ere lortu zituen Santuak, Erregelak erakusten digunez. Hierarkiarekin onean eta menpe bete behar zen egiteko hori.

Fraide bakoitzaren egitekoa zen, gizon-emakume senideen artean zebilelarik, Erreinuaren berri zabaltzea, baina Ordenaren beraren erantzukizuna ere bazen predikua, eta sermolaritarakoak Ministro Jeneralak aztertu ere egin behar zituen, 2. Erregelari ageri den bezala⁶:

Fraideek ez bezate predika inongo Apezpikuren elizbarrutian, hark galerazi baldin badie; eta inor ez dadila inolaz ere herriari predikatzaera ausart, baldin Anaiarte honetako ministro jeneralak miatu eta onetsi ez baldin badu, eta honek beronek predikatzaera zeregina hari eman ez badio. Arren eta arren eskatzen diet neure Fraideei predikuetako beren esanak izan daitezela zuhur eta garbiak, jendearen onerako eta deboziorako, adierazten dizkietela bekatuak eta bertuteak, infernua eta zerua, eta hori guztiori prediku laburretan, zeren hitz motxa egin baitzuen Jaunak lurgainean.

Jakina denez, bigarren eta azken Erregela honek (1223), zentzu juridiko hertsia du aurrekoak baino. I. Erregelari ikus daiteke predikua ari den testu libre eta mardulagoa⁷. Jainkoaren Erreinu, bakea, askapena, penitentzia, bihotz-berritzea, adiskidetzea ziren frantziskotar predikariaren berariazko mezuak, beti hitz labur eta sakonez emanak, hitz neurtu eta garbiz azalduak.

Sermolarien prestakutzaz ere arduratu zen Ordena. Bonabentura Santuak zioenez, "Hitzaren zerbitzua dela-eta, ikasketak egin nahi zituzten fraideek ez zuten izan behar horretarako oztoporik"⁸.

² Lizarralde 1950: 254-255.

³ Lizarralde 1950: 337.

⁴ Ik. A. Arejitaren aurkezpena, gaiari dagokion atalean.

⁵ Cel. I: 29; LM 3, 7; TC 57-59 (jasotako testua hemengoa da); LP 108.

⁶ II. Erregela: 9. kap.

⁷ I. Erregela: 17. kap

⁸ 2. Cel. 103.

Baina jakitateaz gain, izpiritu jatorra behar zuen predikariak: elkar maitasunaren aurkako den oro baztertuz, eztabaida, sesioak eta juzkuak zokoratuz. “Lekuren baten onartuak ez baldin baziren, besteren batera jo zezatela...”, beti bihotz oneko, baketsu, otzan eta apal⁹.

2. XX. MENDEA: SEGIDATASUNA ETA BERRIKUNTZAK

Lehen frantziskotar haien arteko predikuarekiko tradizioa guganaino iritsi da bide askotatik. Herri-Misioen tradizioak –alor berezituago hau adibidez hartuz– misiolari handiak izan ditu Ordenan, eta hain zuzen frantziskotar bat izan da Herri-Misioen Zaindari izendatua (1923), San Leonardo Porto-Mauriziokoa (†1751), 339 Misio eman zituen. Beste zenbait Ordenaren ondoan, pouldar, erredentziotar edo pasiotarren artean frantziskotarrek –frantziskotarofm eta kaputxinoek– oso berriazkotzat izan dute prediku-modu hau.

Bestalde, oro har, esan beharra dago Ordenako lege nagusiak, Konstituzioak, beti arduratu izan direla predikuaz, XX. mendean ere.

2.1. ORDENAKO KONSTITUZIOAK ETA PREDIKUA

Joan berria dugun XX. mende horretan, Ordenako Konstituzio Jeneralek idazketa eta argitaraldi ezberdinak izan dituzte. Eta guztien artean Kontzilio-aurreko eta ondokoak bereizi behar dira. Aurrekoetan, predikuaren alor honetan Erregelak zioena jaso zuten, ezer berri handirik gehitu gabe. Horrelakoak dira, adibidez, 1953etan ageri zaizkigunak.

Besterik da, ordea, ondokoetan ikus dezakeguna: 1987koek badute berrikuntza jakingarririk, Kontzilioaren arrastoan onduak baitira lege-testu berriok. Lehenik, adierazgarria da nola Kontzilio-ondoko Konstituzio Jeneralek predikuarekikoa Apostoluzari dagokion kapituluan ez, baizik lanarenean sartu duten. Horrela, lanak eta langileek izan beharko lituzketen dohain eta bertute berak behar ditu predikuak eta predikariak: ebanjeliotarra izan, xalotasunez eta bihotz alaiz egina, bakoitzaren nor-tasunari dariona, nagusien esanetara egina, Anaiarteko elkarrizketaren emaitza (103 eta 108. art.).

1987ko Konstituzioek predikuaz dakarkigutena lege hauetako V. Atalburuan ageri da, hau da, “Honetarako bidali zintuzten Jainkoak mundura” izenburutzat hartu duen kapituluan. Fraideei dagozkien lanen artean dago Ebanjelioa zabaltzearena ere, eta

hor “Anaiak Ebanjelioa zabaltzera izan dira deituak” gaiak sei artikuluko ditu (83-88. art.).

Predikua, esaten da, ez da hitzekoa bakarrik, baizik eta fraidearen biziera bera da predikurako lehen tresna, eta bereziki hurkoaren alde egin daitezkeen lanen bidez, buru-lan eta esku-lanen bidez. Predikuaren mezu ardatza, diote legeek, Jesus gurutziltzatua da, eta mezulariak, berriz –sermolariak, alegia– lehenik berak bihotz-berritu behar du bere burua penitentziaren bitartez, besteak ebanjelizatzen hasi aurretik, beti ere Anaiartean bizi duen elkartasunaren ondorioz. Elkartasun hau da, hain zuzen, predikuak behar duen testigantza-baliorik onena, Elizaren salbamen-sakramentua erakusteko.

Hau da Kontzilio-ondoko Konstituzio hauek Vatikanoko II.aren argitan predikuaz azpimarratu nahi izan dutena, baina predikuarekiko lege-arauetan sartu gabe, eta lehen orduko frantziskotar haien kezka-moduetara etorriz (Ebanjelioa, etsenplua, penitentzia, onberatasuna, elkartasuna, etab.).

Ordena osoko irizpide horien ondoan, hemen, gure artean berton, predikua nola begiratu izan den ere galde daiteke.

2.2. EUSKAL PROBINTZIAKO TESTUINGURUAN

Probintzia izanberritu zenetik hona (1859, 1886), prediku-laneko frantziskotarren konpromisoa hedatu baizik ez zen egin, ikuspegi ezberdinetatik: has-teko, lehenago batean ez bezala, fraide apaiz denak bilakatu ziren sermolari ere, beharreko ziren legezko baimenak lortu ondoren, noski. Bigarren, hori jakinki, apaizetarako ikasketetan sermolaritarako prestaketari bere lekua eman zitzaion, nolabait esateko Seminario Txikitik hasita (jendaurreko agerpenak, deklamazioa, etab.), eta apaiz-ikasketak amaitzean, ikastaro berezia eratu izan zen apaiz berrientzat, “Curso de Oratoria” zeritzan batekin, horretarako eskuliburu eta guzti (Probintziarako argitara emandako Aita J. Alejaldre-rena, hain zuzen)¹⁰.

Nolabait esateko, aurreko mendeetako Misiolari-Kolegioetan predikariak zuen prestakuntza berezituagotik galdu zena, Izanberrikuntzaren ondoren prestakuntza sozial hedatuagoan irabazi zen: XX. ean fraide apaiz guztiek izan dute predikurako prestakuntzaren bat, eta erakundeztaturik egon da sermolaritarako prestakuntza hori. Gero, bakoitzak eman izan du ahal eta aukera izan duena, norberaren gaitasunen eta gogoaren arabera.

Honela, ba, XX. mendeko komentu nagusi eta txikiagoetako “lehenengo” eta/edo “bigarren predi-

⁹ Testamentua, 6; II. Erregela: 3. kap.

¹⁰ ALEJALDRE, J. (1924): *Guía del orador*. Vich.

kari" haiek desagertu arren, frantziskotar Etxe ba-koitzean apaiz denek jakin izan dute hizlari izaten, modu arruntean nahiz landuagoan.

Horrek, ordea, ez du esan nahi predikari arrunt guztietan berezikiago trebatu eta dohaturik egon ez denik. Aitzitik, horrelako franko izan da frantzisko-tarren artean, mende hasierako Aita D. Baertel du-ragarrarengandik hasi (†1922) eta E. Agirretxe erre-zildarraganaino. Jada lehen orduan, Bermeoko Etxea irekitzean (1859), bertara bildu zen herri-misio-lari esklastratu zenbait, eta halaxe gertatu zen Donapaleun (1851), eta Zarautzen gero (1876) eta Arantzazun azkenik (1878).

Aldian aldiko Misio edo Gogo-Jardunekin bate-ra –horiek aukera aparta izan ohi ziren herri eta parroketan sartzeko–, Hirugarren Ordena abiapuntu sozial iraunkorra izan zuten sermolari frantzisko-tarrek ekitaldi jendetsuak bildu eta gidatzeko: Be-goñan, Lezon edo Limpas-en eskenatoki parega-beak izan zituen Aita Jose A. Ugarte batek (†1935), esateko. XX. mendeko lehen erdian honelako biltzar gogoangarririk behin eta berriz ikusi zen, ser-molari eta jende-gidari sozial azkarrak aurrean zire-la (1900, 1908, 1912, 1916, 1921, 1927). Hizlarien erakarmena zinezkoa gertatu zen halakoetan.

Sermolari berezituago hauen historia egiteke egon arren, L. Basabe-ri zor diogu gerra-aurreko balantze bat, izenez izen egina eta batzuetan esta-tistika harrigarriak ematen zizkiguna¹¹. Lehen ha-markada haietako eskarmentuaren ondoren, ge-rraostea ere ez zen izan maingua. Alderantziz: be-rehalako hogeitabost urteetan, predikari handien lana eta emana oparoak izan ziren, komentu ezber-dinetako prediku-ibilerak erakusten duenez (1940-1965). Esate baterako, besteak beste, Arantzazuko Probintziako sermolariak Penintsulako beren Ko-mentuetatik 443 misioaldi eman zituzten 1944-1953.etan (zehazkiago, horietako 386 Euskal Herri-ko Komentutatik)¹².

Pastoraltzako lan honek guztiak zuen garrantziaz jabeturik, Probintziak gogoz hartu zuen herri-misioen zerbitzua hobeki prestatu, antolatu eta batera-tuago eramateko zeregina. Horretarako bi Biltzar eratu ziren Arantzazun, Euskal Herriko herri-misio-lariak eta predikuaz arduratuak bilduz: Herri-Misioei zegokiena, 1954an, eta Apostolutzaz jardun zuena, 1958an. Bietako hitzaldi, txosten eta emaitzak *Cantabria Franciscana* barne-aldizkarian ikus daitezke.

Lehenengo Biltzar hartako emaitzetako bat, hain zuzen, Arantzazuko Probintzian Herri-Misioen Idaz-

karitza sortzea izan zen, Aita Andres Uberuaga-ren zuzendaritzapean. Eredu honen gain, eta ardura-dun berarekin, eratuko zen urte batzuk geroago Es-painia osorako frantziskotarrek izan zuten Idazka-ritza ere. 1960. etako hastapenean, horrek guztiak aski indar izan zuen Estatuko mugen gaintik atze-rrira ere joateko: CONFER erlijiosoan-ekartearen es-kutik dozenaka frantziskotar euskaldun joan zen Ameriketara (Ertamerika eta Hego-Amerikara), hainbat hilabetetan Herri-Misioak emateko.

Baina, ordurako –Kontzilioaren haizeak eliz egi-tura astindu baino lehen ere– sumatu zen Misio-molde haiek berrikuntza egoki baten beharretan zeudela, antolaeraren aldetik ez ezik, baita erabil-tzen ziren gaien eta ekitaldi-moduen aldetik ere. Kezka horren azalpen bat aipatutako 1954 eta 1963ko Biltzarretan daukagu, Misioetarako “Direc-torio” berritua eskatzean eta azken bilera horretan B. Inurritegik aurkeztutako ponentzian¹³.

Beste gauza askotarako bezalatsu, predikuan oro har eta Herri-Misioen munduan Arantzazu izan zen frantziskotarren artean arazo eta zeregin hauek aztertzeke topagunea, etxea erosoaz izateaz gain, izan ere berau baitzen bere osoan prediku-eskar-menturik zabalena biltzen zuena.

2.3. EGITARAU TRADIZIONALA: URTEROKO EGUTEGIA

Urtero izan ohi da San Pedro Mutiloan, San Joan Hernani edo Tolosan, San Bartolome Zegaman eta San Roke Gernikan, eta jai bakoitzak bere hizlaria behar zuen. Egun horietako panegirikoak izan dira Arantzazutik egindako lan bat. Santuen jaiak izan dira, beraz, urteko sermoi-egutegiko parte bat, An-dre Mariaren bizpahiru jai betikoak gehituta.

Abendua eta Garizuma (inauterietatik Pazkora doan aldia) aparteko prediku-garai bereziak gerta-tu izan dira: ezin zen jardun berezirik gabe gelditu aste haietan (Gogo-Jardun gutxi-asko luze-labur-tuak, Garizuma-sermoi multzoa, Kalbarioak), eta zenbait urtetatik behin Herri-Misioak.

Garizumako buru eta bihotz Aste Santua izan da, herri batzuetan, gainera, bertako urteko jai han-dien artean zegoena. Arantzazuko komentua Aste Santuko Hirurren handirako hustu egiten zen (eta da), nahiz eta Santutegiko bertako ospakizun ongi zainduak ere arreta osoa eskatzen duten. Egun haien aurretik, aitzineko asteetan ere, propio ser-molari zirenak jada herrietako lanetan zebiltzan,

¹¹ Homenaje 1935: 146-158.

¹² *Cantabria Franciscana*. XIII, 1955, 160-163.

¹³ *Cantabria Franciscana*. XIII, 1955, 171; Cuadernos de CF. I, 1965, 69-75.

eta Aste Santuan gainerako fraide-apaiz libre denak joan ohi ziren (eta dira) deia jasotako herrietara, elizkizunetan lagundu eta urteko sermoi landuenak egitera.

Ondoko dakuetan ikus daiteke mende osoan zehar, bost urtetik behingo datuekin, nola banatu izan diren fraideak herrietan, Aaste Santuko egiteko irtenaldi bakoitzean bat edo gehiago sermoirekin (1920-1975)¹⁴:

ASTE SANTUKO SERMOIAK
(Arantzazutik, urtez urte: 1920-1975)

Urtea	Kopurua
1920	.8
1925	.14
1930	.10
1935	.8
1940	.7
1945	.11
1950	.8
1955	.9
1960	.17
1965	.20
1970	.13
1975	.12
Orotara	.137

ASTE SANTUKO SERMOI-IRTENALDIAK
(Arantzazutik, herriz herri: 1920-1975)

Herriak	Irtenaldiak
Eskoriatza	.15
Oñati	.12
Zerain	.11
Zegama	.9
Mutiloa	.9
Segura	.7
Lagazpi	.6
Aramaio	.5
Idiazabal	.4
Ormaiztegi	.4
Aretxabaleta	.4
Antzuola	.4
Gainerakoak	.48

Gisa berean hustu izan da Arantzazu abuztuko Andre Mari egunean, edo abenduan, Sortzez Garbiarenean. Gainerakoan, indar apalagoa izan dute

Santu Zaindarien egunek. Erritmoa eta tamaina aldatuz, Aste Santukoak nahikoa berean iraun duen bitartean, panegiriko eta kristau-heziketarako predikuek ezagutu dute aldakuntza larriagorik XX. mendean.

2.4. KONTZILIOA: TRADIZIOA ETA ALDAKUNTZA

Gizarteko eta komentuko bizimoldeak aldatzea-ekin batera, aldatuz joan dira predikaritzako zereginen eskaintza-moduak ere. XX. mendeko lehen erdian betidaniko moldeak izan ziren nagusi, horretarako eskea, eskaintza eta baliabideak ere hala-koxeak zirelako.

Gero, mendeko bigarren zatian, gizarte osoak mugikortasun fisikoa irabazi zuen, balio-sistemek irekitasun zabalagoa izan dute, Kontzilioak eliz ulerpen berri bat eskaini zuen eta, azkenik, sekulartasuna bete-betean heldu da euskal gizartera eta Elizara bertara ere.

Adibidez, garai bateko herri-misioen lan-moldea orohartzailea zen, herritar guztiak eta herria bere osotasunean erabat atzeman nahi zituen Misioak, kristandade-kontzeptzio baten barnean. Erantzuna ere halakoa izaten zuten Misio haiek: herri osoaren partaidetza lortzen zen (edo behartzen), disidentzia ez baitzen erraza. Badirudi misioaldi haien urterik onenak (Euskal Herrian eta frantziskotarrei dago-kienean) urte jakin batzuetan eman behar dela: 1945-1965. Horren aurretik eta ondoren, ibilera askoz apalagoa izan zuten Herri-Misioek.

Arantzazuko kasuan ere –ikusiko dugu– halaxe suertatu da.

1970etik hona, esateko, Arantzazutik ez da Misiorik antolatu eta eman, harrigarria bada ere (baieztapen honetaz, beharreko nabardurak eskainiko dira geroxeago): izaera eta jarduera ezberdineko Gogo-Jardunek eman diote segida lehengo horri, ez lehenagotik horrelakorik ez zegoelako, baizik eta Misio/Gogo-Jardunen arteko oreka erabat hautsi zelako. Estatistikak argiak dira honetan.

Oro har, Kontzilio-aurreko predikua kristauarteari gisa sozial guztiz irekian eskaini ohi zitzaion, hau da, herritar denei eskainitako sermoi asko zegoen urtean zeharreko elizkizunetan, baita Abendu edo Garizumako jardunaldietan ere. Urteak iragan ahala, zerbitzu berezituagoak ere agertu ziren (haur, gazte, emakumezko, ezkondu, guraso eta abarrentzat). Baina pertsonalagorik nahi zuenak Gogartexetara joan behar zuen, edo eliz barnetegietako jardun berezietara.

¹⁴ Bost urtetik behingo datuak metatu ditugu herrietan (hau da: 1920, 1925, 1930, 1935...), herri bakoitzarekiko maiztasunaren-neurria hurbilpen gisara adierazteko. Zifrek ez dute, beraz, erabateko baliorik, Aste Santuetako nondik norakoaren joera iraunkorrenak (herriekiko maiztasuna) erakusten dizkigute, bakarrik.

Neurri handi batean, elizak hustean (1965-1975), Misiorako deiak erakarmena galdu zuen, eta herrietan talde txikiak sustatzeari ekin zitzaion; ondorioz, Gogo-Jardunak –irekiak deitzen ziren kasu honetan– indarberitu eta ugaritu egin ziren, eta gogoeta eta ikas-taldeak zaindu ziren bereziki pastoralean.

Horrek guztiak, ordea, ez du esan nahi tradizioz jasotako prediku-modu denek eten- edo alda-muga bera izan dutenik; alderantziz, batzuek beren hartan iraun dute: Garizuma edo aldi trinkoetako predikaldiek (gogora Aste Santua, adibidez), urteko zenbait jai handi orokorretakoek (abuztuko Andre Mari, Sortzez Garbia, eab.), nahiz herrietako Zaindari-jaietakoek.

Besterik da, hala ere, garai bateko Bederatziurten eta antzeko prediku-seriatuen historia: horrelako asko eta asko desagertu egin da, eta haien karietara egin ohi ziren sermoiak ere bai.

Bistan da, Santutegitik buruturiko prediku-zeregina antolaera berri eta aldakuntza bizkorretara egokitu dela, garaian garaiko izateko bere ahaleaginean.

3. ARANTZAZUN ETA ARANTZAZUTIK EGINDAKO PREDIKU-LANA

Frantziskotarren Etxeetan, ikertzailearen zorionerako, bertan eta bertatik egindako prediku-lanek azterna zehatza utzi dute komentuetako Kroniketan, hauek idazten hasi ziren lehen urteetatik (1912...) 1970a arte edo. Probintziako Kronikariak (Aita J. Rz. de Larrinagak) emandako idatz-arauen arabera, hilabetez hilabete jaso behar zuen etxeko kronikariak fraideen sermoiaren berria: zenbat izan ziren halako ekitaldiak, nork, non eta zein egokieratan emanak. Horri esker, gaur egun atzemangarria da komentuz komentu berrogeita hamar urte haietako (c. 1920-1970) predikuen eboluzio koantitatiboa eta unean uneko lanaren hedapen geografikoa.

Azken muturreko ikerlanetan sartu gabe, horixe da hemen Arantzazukoaz jardutean ispilatu nahiko genukeena, nahiz eta ia osorik Misio eta Gogo-Jardunetara mugatuko garen, predikuen antolaera liturgiko-ziklikoa eta tematikoa bere osotasunean azaltzera iritsi gabe.

Euskal Herriko frantziskotarren komentu izanberrituetan prediku-lana urteko egutegi jakin baten arabera egin ohi zen Kontzilio-aurre hartan, esan dugu: komentuak, Senitarte bezala, urteko jarduera egitarautua izaten zuen, eta lanaren banaketa Aita Goardianoaren esku zegoen, bata hona eta beste hara halako eta bestelako egunetan bidaltzeko. Hala ere, beti zeuden alde zuretik programatu gabeko zereginak ere: herriren bateko jaiak zirela, ospakizun liturgikoren bat eta ezohizko jaiak.

Joan-etorri horren guztiaren albisteak komentuko kronikariak biltzen zituen, hainbat aldiz (ez beti) urterokoak ez ziren edo arrandiatsuago ospatutako elizkizunak eta deskribatuz ere bai.

Zeregin hauetan guztietan Santutegia beti izan da lantegi berezi samarra.

3.1. SANTUTEGIAN ETA INGURUETAN

Arantzazuko komentuak bere eliza (Basilika, 1921az gerostik), auzoa, herria (Oñati) eta eskualde hurbilak izan ditu. Ikusi denez, Santutegiko bizitza historikoan ere ageri da hori. Hortik harago joan aurretik, bertako eta gertuko inguru honetaz esan beharko dugu zerbait.

3.1.1. Arantzazu, bere baitako predikategia

Probintzia erlijiosoko komentuarterko testuingu orokorraren barnean, Arantzazuko prediku lanak bere berezitasun eta ezaugarriak izan ditu, orduan eta gero.

Ez dago esan beharrik, Santutegiko Fraideartea hain zabala eta ugaria izatea dela lehen oinarrizko datua, eta gogoan hartzekoa, gainera: asko ziren bertako fraide apaizak, ez denak eguneroko eta noiznahiko sermolari, baina bai, premiak halakorik eskatzen zuenetan, horretarako ere balio zutenak.

Bestalde, Etxeak eta Fraidearte honek bere lehen eginbeharra Santutegiaren beraren zerbitzuan lan egitea izan du, eta beraz, nonahiko herritatik zetozen erromesei Hitzaren predikua eskaintzeko betekizuna. Hori bere ohiko lan iraunkorra izan da Arantzazun bertan. Berorren esanahi eta tamaina ezagutzeko Arantzazurako Peregrinazioen historia begiratu behar da, Santutegian egindako sermoiaren oihartzuna eta alkantzu-geografia ezagutzeko. Irratirik ez zenean ere, herri askotako etxetara iristen zen Arantzazuko bertako hitza, erromesak milaka etxetatik etorri izan direlako.

Azkenik, Santutegi estimatua zela eta –“Arantzazuko fraideen” egoitza maitatu eta miretsia, alegia–, predikurako deiak ugariago etorri izan dira Arantzazura, frantziskotarren beste komentueta baino, baita bertako pertsonala ugariagoa zelako ere.

Sermolari frantziskotarraren irudi herritarra, bestalde, Ordenak mundu osoan izan duen sermolari ereduaren antzekoa izan da (herri xumearengandik hurbila, harreman errazekoa), betiere aldi aldi kristauen pentsamoldeetara moldatua, neurri batean, eta aldi batean baita herritar mentalitatearen moldatzailea ere.

Etxe barrura gatozela, Santutegiak bere barneko erlijioso-gogoeta ere zaindu du, eta meditazio lan-
duarekin batera baita Fraidearteko senideen, frai-
deen, hitzaren zerbitzua ere. Hau kanporako lanen
aurretik zegoen komentuko arduradunen burutan,
erlijiosoak Hitza bere lehen hazkurria duelako.

Horrela, adibidez, lehenago liburu bat irakurriz
lagundu ohi zen goizeko Fraidearteko gogoeta isila-
ri moldaera biziagoa ematea erabaki zen, 1960. etako
hamarkadan: egun izendatueta Anaia batek gida-
tuko zuen gogoeta bere mintzaldiaren bidez. Etxe-
tarrentzako lan hau estimagarria izan da, ba.

Liburu honetako zenbait lanetan ikus daitekeen-
aren arabera, Arantzazun bi ikas-barnetegi egon
dira XX. mendean: Frantziskotarren Seminario Txi-
kia (izen horrekin edo besterekin, XIX. etik zetorre-
na, eta 1990. a arte jardun zuena) eta fraide gazteen
Filosofi nahiz Teologi ikastegia. Bistan da gazte
hauen guztien hezkuntzan Hitzaren lan pastoralak
leku nagusia izan duela, baina guk hemen ez dugu
deus handirik bilduko horretaz; hala ere, nahitaez
aipatu eta gogoan hartzekoa da eremu hau ere.

Fraide Anaiantzako lan horren ondoren, etxek
kanpokoentzat egindako Hitzaren zerbitzua da
orain aipatu nahi duguna: Basilikakoa bera, Aran-
tzazuko auzotarrekikoa, Urbiako artzainena, Oñati-
Arrasate herri hurbiletako pastoraltzan emana, eta
eskualdean bertan herriz herri nonahi eskaini diren
mota guztietako jendaurreko hitzaldiena.

3.1.2. Basilikako predikuak

Eliza guztietan bezala, Arantzazukoan ere Litu-
rgiako ospakizunak egin beharrekoak izan dira, Litu-
rgiaren urte osoko ibilera ziklikoa betez, eta horretan
sermolaritzari, zegokion lekua eman izan zaio.

Dena den, ohizko eliz jarduera horretan ez da
izan XX. ean zehar beti eginbide bat bera gizaldi
osoan, batez ere Kontzilioaren ondorioz. Jakina de-
nez, oro har, eguneroko ohiturak oso aldatu dira,
eta horiekin batera predikuak ere –edo gisa ezber-
dinetan aurkeztutako Hitzak– garrantzi eta presen-
tzia biziberrituak irabazi ditu.

Hori esanda, gogora dezagun, esateko, Kon-
tzilio-aurrean igandetako Meza askotan meza-ema-
ileak ez zuela sermoirik egiten, baina Kontzilioak
zeregin hori Mezari berari lotuta utzi zuela, herri-
hizkuntzaz irakurritako pasarte biblikoak sermoia-
rekin laguntzeko. Bilakaera historiko horretan azpi-
marratzekoa da, Arantzazuko Basilikan igande-jaie-
tako Meza arruntetan ere hitzaldiak egitea askoz le-
henago erabaki zela, 1936an.

Modu guztiz irekian nornahirentzat egiten ziren
horrelako lanen ondoan, ordea, ezin da ahantzi San-
tutegian giza-talde bereziagoak egon izan direla ia

beti. Aipatzekoak dira Ostatuan edo Gogartetxean
egon izan diren erlijiosa eta zerbitzariak. Ahizparte
horrek bere kapera izan du, eta aldiari bere
Hitz-ospakizunak ez ezik baita heziketa iraunko-
reko mintzaldi eta bilerak ere.

Bestalde, modu iraunkorrean nahiz unean
uneko lanetarako Santutegian bildu diren langile
eta mirabeek ere izan dute aukerarik fraideren
baten hitzaldiez beren fede-hezieran aurrera egite-
ko. Horrela gertatu izan da aipatutako bi egoitza
horietan, eta baita barrakoietan bizi behar izan
zuten Basilika-eraikuntzako etorkin haiekin ere.
Badago hor nonbait heziketa-lan hau gogorarazten
dugun argazkiren bat, Aita Lasa eta Villasante langi-
le-talde harekin ageri direla.

3.1.3. Inguru hurbileko auzo eta herrietan

Gorago, Arantzazuko prediku-tradizioa aipa-
tzean, esan dugu zerbait honetaz. XX. mendean,
lehenagoko hitzarmen formalik gabe izan arren,
gertuko auzoekin eta herrietako parrokiekin harre-
man estuak izan ditu Santutegiak, urteko prediku-
zereginetan laguntzeko. Eta, aldi eta kasu batzue-
tan, parroki lana bera eta tokiko pastoraltza osoa
ere Arantzazuko fraideen eskuetara etorri da, ikusi-
ko dugunez, hau da, ez garai batetik geratu zaigun
sermolaritza klasikoa bakarrik, Hitzaren prediku-
molde guztiak baizik.

Hasteko ekar dezagun hona Urbiako Ermitaren
kasua. 1924an eraiki zen berori, eta 1935az geroztik
eman dute fraideek bertan iganderoko Meza,
maiatzetik urrira lehenengo, eta 1968tik hona, aza-
roraino ere. Bere sermoiarekin, noski.

Urbia udaldiko auzoa dela esan dezakegu, ur-
tealdi mugatukoa behintzat, baina Arantzazutik
bertan dauden bi auzune iraunkor dira berezikiago
hona ekartzekoak: Araotz eta Urrexola. Hauetako
prediku-eginkizun jasoagoak arruntki Arantzazuko
fraideek –Santutegitik edo Bidaurretatik– bete di-
tuzte XX. mendean, eta azken hamarkadetan baita
pastoraltza osoa ere, Araotz eta Urrexola bi auzoe-
tako elizak beren ardurapean dituztenetik. Gisa be-
reko lanak bete izan ziren, Soraluzeko bi auzunetan,
San Ignazio eta San Andres-en, iganderoko Meza
emanez. Sermoia, noski, horrekin batera zihoan.

Oñati herrigunearrekiko prediku-zerbitzuak aski
hornituak izan dira 1878az geroztik, eta are gehia-
go fraideak Bidaurretara kapilau gisara itzuli zire-
netik (XX. mendeko bigarren hamarkadan). Bes-
talde, ez da ahantzi behar Oñati dela, azken hamar-
kadetan eta zenbait aldetatik, soslai frantziskotar
biziena izan duen herria. Predikuaz ari garela,
1920tik aurrera bi hamarkadetan, Garizuma oroz

arrasaldetako bi orduko mintzaldiak izan daitezke lankidetza horren adibide bat.

Arrasate izan da Arantzazutik gertu egon den beste herria, hamaseigarren mendetik bere komentu frantziskotarra ere izan zuelako, noski, baina baita hori gabe ere (gogora dezagun, fraiderik ez zenean, arrasatearra izan zela Santutegiko Kapilau Nagusia, E. Arregi). Arrasateko komentua, 1950. etako hamarkadan izanberritu zenetik, Santutegitik sarritan eta urtetan lagundu izan zaie komentu-eliza hartako igande-lanak egiten.

Bukatzeko, gogora ditzagun betidanik Arantzazurako urteroko erromesaldiak egiteko ohitura izan zuten herriak, edozein garaitan ere beren usadio hori gorde zutenak. Peregrinazio hauek gainerako mota ezberdinetako lokarriak ere bazekartzaten herrien eta Santutegiaren artean, eta horietako bat izan ohi zen urteko jai handiago eta aldi trinkoagoetan sermolarriak Arantzazutik eramatea.

Horrela izan da Goierriko herrietan (Zegama, Segura, Mutiloa, Zerain, etab.) eta Arabako lautada hurbilean ere (Lizarralde herri-zerrenda zabala jaso zuen). Ikusiko ditugun Misio-urteetan ere, preseskiago 1955ean, Araban bazegoen Arantzazurekiko harremanen oroitzapenik¹⁵.

3.2. SERMOLARIAK HERRIZ HERRI: MISIOAK, GOGO-JARDUNAK

Gorago ikusi da urteoroko prediku-egitaraua zein zabala eta mota-anitza zen, eta berezikiago esan da zer bait Aste Santuaz. Hemen orain denetarik hitz egiterik ez dugunez, Herri-Misioez mintzatu gara zabalago (1944-1984), Gogo-Jardunei buruz ere estatistikaren bat dakargun bitartean (1952-1963, eta ondoko bilakaeraz).

3.2.1. Geografia irekia

Santutegitik zaindutako prediku-geografian, sermoi-maiztasun ezberdineko herriak dauzkagu; bestalde, oro har lurralde zabala da Probintzia erlijiosoko frantziskotarrek XX. mendean besarkatu dutena, baita Santutegitik bertatik hartutakoa ere. Tokian tokiko maiztasunak aldakorrak izan dira hamarkadetan zehar (aipatu da gorago Aste Santukoa), garaiek eskatzen zituzten prediku-zerbitzuak ezberdinak izan direlako eta, oro har, apaizartea oso aldatu zaigulako, kopuruz eta pastoraltza-egitarauetz, eta Kontzilio-ondoko eskakizunei molde berrietan erantzun behar izan zaielako.

Gipuzkoako herriak dira, noski, lan horretan sarrienik bisitatutakoak. Eremurik ikustatuena Leintz ibarra, Oñati-Bergaraldea, Goierri dira Gipuzkoan. Bizkaian, berriz, beste frantziskotar komentuen inguruetan lekutzen da arantzazuarren presentzia, Gernika, Bermeo eta Durangoko inguruetan. Maiztasun honetarako Bilbo urrun geratzen da, nahiz eta mojen komentuen zerbitzura aski sarritan urrun samar joan (Balmasedaraino, adibidez); dena den, mojen hau aparteko kapitulua da sermolaritzaren historian, eta hemen ez gara horretaz ari.

Azpitarratzekoa da, Nafarroako euskal Mendialdea oso Arantzazukoa gertatu dela, eta horren arrazoi historiko-geografikoak argi daude, bestelako kidetasun pastoral-kulturalak ahortzi gabe. Mendialde horretako prediku-tradizioa aspaldidanik zuen Arantzazuk (zer bait esan da arestian), eta esklaustrazioak hori dena nolabait eten bazuen ere, 1878tik aitzina Santutegiko fraideek beren barrutikoa zuten lurralde hori. Erriberriko komentua (1880) urrun zegoen, eta hau Nafarroa erdaldunari begira ari zen batez ere, eta Donostia eta Tolosan berandu arte ez zen komenturik izan (Tolosa, 1915; Donostia, 1923), eta orduan ere Fraidearte txikiarekin. Zerbitzu honetarako Etixerik erosoena, beraz, Arantzazukoa gertatu zen, eta behin ohitura hartuz gero, berean segi zezakeen egoerak.

Zalantzarik gabe, komentu-barrutiak eratzean (1915, 1949) ezarritako muga malgutasunaz mendean zehar ongien baliatu zena Arantzazuko Santutegia izan zen, bere alde zuen itzalagatik, une jakinetan eskueran zeukan pertsonal ugariagoagatik, eta, esan bezala, lehenagoko harremanek lagundu zituelako.

1970etik aurrera, garai batean Santutegiak berez zuen urruntasun fisiko hura ere gaintu ahal izango da, pastoral-lanik bizkorrena zeramaten fraideentzat behintzat, beribilak han eta hemengo herriak hurbildu zituenen. Lehengo lan-moldeei eusteko baino gehiago berriak sustatu eta maiztasun trinkoagoz kristau-taldeei Hitzaren zerbitzua eskaintzeko balio izan zuen horrek.

3.2.2. Hamarkada adierazgarri bat Probintzian: 1952-1963

“Gogo-Jardunak” aipatu dira. San Ignaziok asmatu eta josulagunek hedaturiko fede-gogoeta molde honek frantziskotarren artean bere ukitu bereziak zituen, Ordenako espiritualitatetik zenbait puntu jasoz, sistemaren jatorrizko logika zurrungoa malgutasunez hartuz eta betiere tokian tokiko gogo-jarduleen jitera moldatuz.

¹⁵ Lizarralde 1950: 181-185. J. Alustizak gogorarazi digu, Arabako Errioxatik (Kripan eta *Vinaspres*/Benasperitik) Arantzazura oinez nola etorri ohi ziren, 1955ean emandako Misio-egunetan kontatu ziotenez.

Juxtu, gerra-aurretik bazen Arantzazun “Gogartexe” bat, eta hor Gogo-Jardun itxiak egiten ziren. Berorren historia liburu honetan Iñaki Beristain-ek eman digu, eta ez naiz horretaz ariko. Esan dezadan bakarrik, etxe horretan frantziskotarrak izan direla –eta Arantzazukoak bereziki hirurogei eta gehiago urtetan Gogo-Jardunetako talderik gehienak zuzendu dituztenak. Praxi zabala izan dute, beraz, prediku-mota honetan.

Hori dela eta, Gogo-Jardunen teorikarien argi eta babesa ere bilatu zuten, komeni izan zenean; hala nola, Aita J. J. Goikoetxea josulagunak Portu-galeten zuen Gogartexera hainbat frantziskotar joan izan zen (1953-1954), hilabeteko Gogo-Jardunak egitera, eta ez norberaren izpiritu-premien onetan bakarrik, baita gerora eman zitzaizketen jardunaldietarako prestatzeko ere. Gogoratzekoak dira, gutxienez, prestakuntza berezitu honen mesedetan Arantzazun emandako ikastaroak: bata A. Sukia geroko Kardinalak zuzendutakoa (1953) eta bestea Aita Arellano josulagunak emandakoa. Sukiaren kasuan, gainera, argitalpena ere egin zen ikastaroko langaiekin, gero Gogo-Jardunetarako ez ezik Herri-Misioetarako ere predikariek oso gogoa izan zutena¹⁶.

Arantzazuk Probintzia erlijiosoan izan zuen leku erlatiboaz jabetzeko, hemen ongi etorriko da predikuan beharbada hamarkadarik oparoeneko Gogo-Jardun eta Misioen estatistika orokorrak biltzea. Aita A. Uberuagari zor dizkiogu 1952-1963 urteetako datuak¹⁷.

EUSKAL HEGOALDEA:

Frantziskotarren Predikua (1952-1963)

<i>Herrialdeak</i>	<i>Misioak</i>	<i>Gogo-Jard.</i>
Araba	9	6
Bizkaia	117	208
Gipuzkoa	88	216
Nafarroa	57	54
Orotara	271	484

Arantzazuko Probintzia osoko datuak dira

Arantzazuko Frantziskotarren Probintzian esandako urte horietan apaizetako % 21-%27k hartu zuen parte mota honetako predikuetan, Misio eta Gogo-Jardunetan alegia. Komentu bakoitzak bere

neurrian izan zuen lekurik horretan: iturriak esaten digunez¹⁸, Arantzazutik 86 herri-misio eta 137 Gogo-Jardun ireki eman ziren data horietan (Gogartexean, gainera, 299 Gogo-Jardun itxi, eta erlijioso etxeetan, 115).

Beste Komentuen artean, Santutegia da Euskal Herriko lanean frantziskotarretan lehenengo ageri zaiguna, alde handiarekin gainera, zeren Erriberriko etxeak zifra altuagoak izan arren, Misio-lana batez ere Euskal Herrikan kanpo egin baitzuen (Guadalajarako diozesian, Bereziartua Gotzainak deituta: Aita Hurtadok, adibidez, 50 misio eta F. Sagues-ek 29)¹⁹. Misiotan Euskal Herriko kopuruak honela ageri ziren orduan: Forua 72, Donostia 64, Arrasate 56, Bermeo 54, Bilbo 43, Zarautz 40, etab.

Herrietako Gogo-Jardun irekiek beste aurpegi estatistikoa erakusten zuten epealdi hartan (1952-1963). Arantzazu zen, noski, lehenengoa (137rekin; Erriberriko bestelako salbuespen nabartua gogoan dugula: 167); ondoren, beste komentu frantziskotar hauek zetozen: Donostia (121), Bilbo (119), Forua (86); Tolosako estatistikak Gogo-Jardun itxi eta irekiak batera zenbatu zituen (65). Gogo-Jardunetan, Arrasate atzean ageri da (28), zalantzarik gabe Fraidearte txikia zelarik bertako zenbait Anaiaren Misio-lanaren hobespenak markatutako historia da (Garmendia, Garaialde, etab.).

Euskal Herrialdeetara gatzela, hamarkada hartako albisteok zera erakusten dute: besterik espero baldin bazitekeen ere, emanaldien zenbaki-kopuruz Bizkaia izan zela frantziskotarrek gehien landutako lurraldea: 325 (117 Misio eta 208 Gogo-Jardun). Baina azpimarratzekoa da, herrien tamainaren arabera, herri eta auzo txikiak izan zela Misioena. Galdakao, Lekeitio edo Ondarroa kenduta, gainerako herriak txikiak eta oso txikiak dira, Bermeo eta Bilboko komentu-egoitzetakoa ez bada. Gogo-Jardunetan zuzendu zen hori zerbait, Barakaldo, Basauri, Deustua, Durango edo Gernika bezalakorik ageri baita kasu honetan.

Gipuzkoa dator Bizkaiaren ondoren, baina oso bestelako aurpegi batekin. Misiotan Bizkaikoaren oso atzetik ageri zaigu Herrialde hau (88 bakarrik), herrietako Gogo-Jardun irekietan zerbait gainetik den bitartean (esan bezala, Gipuzkoan 116, Bizkaian 208). Misioen geografiara gatzela, badirudi beraien banaketa giputza harmonia hobean doala

¹⁶ Aita Andres Uberuagari (Probintziako Herri-Misioen Idazkari izandakoa bera) zor diogu azken ohar hau. Sukiaren ikastaroko langai argitaratuak: “Cursillo de Ejercicios de San Ignacio”, in: *Cantabria Franciscana*, 1953.

¹⁷ Hamarkada honetarako iturri estatistikoak: *Cuadernos de “Cantabria Franciscana”*. 1. zenb., 1965, 159-198, eta bereziki 171, 173-174. Biziki deitoratzen dugu Aita A. Uberuagaren artxibo eredugarriaren galera.

¹⁸ Ez da ahantzi behar zenbaketa bikoitz eta orokor honetan (1952-1963) ez darabilgula Kronika (honek epealdi bererako 90ko kopurua ematen du), aipatutako beste iturri hau baizik: *Cuadernos de “Cantabria Franciscana”*. 1. zenb., 1965, 191-198.

¹⁹ Id., 175.

Herrialdeko egitura sozio-demografikoarekin, ez baita falta presentzia “urbanoago” bat, Aretxabaleta, Azkoitia, Eibar, Hernani, Legazpi, Oñati, Errenteria, Donostia, Bergara, Zarautz edo Zumaiarekin. Gogoratzekoa da, gainera, hiri eta herri handitxoetan frantziskotarrei euskarazko lana eman ohi zitzaizela berezikiago (Eibar, 1953), erdarazkoetan ere ari ziren bitartean²⁰.

Gipuzkoako Gogo-Jardunei buruz bada, bestalde, berezitasunik: 56 herri-herrixketan eman ziren hauek, batzuetan urtero edo, gainera (Mutriku, 11; Tolosa, 11; Bergara, 4, Zumarraga, 4, etab.); Donostian 61 emanaldi bete ziren, hainbat parrokia eta eliz etxetan; Bilbokoarekin du honek antza, epealdi berean hiri honetan 89 aldiz eman baitzituzten Gogo-Jardunak frantziskotarrek.

Frantziskotarren Arabako prediku-presentzia askoz apalagoa da, besterik beste herrialdean komenturik ere ez zutelako (etxe berriaren lehen urratsa: Gasteiz, 1972). Egia da aurreko mendeetako Araba frantziskotarra aberatsa izan zela bere historian, eta XIX-XX. mendeetan ere Elgea ondoko lautada hurbila Arantzazurekin harremanean egon izan dela (urteroko erromesaldiak horren lekuko), baina Herrialdean bertako komenturik ezak bere ondorioa izan zuen: aipatu epealdian, Araban 9 Misioa eman ziren bakarrik, eta 6 Gogo-jardun.

Alderantziz, Nafarroan (garai horretan, Herrialdean Erriberriko komentu bakarrarekin) 57 Misio eskaini ziren, ia denak ipar Mendialde euskaldunetan²¹, beraz Erriberitik baino Tolosa edo Arantzazutik emanak. Gogo-Jardunek (54), ordea, geografia zabalagoa izan zuten, eta lan-mota honetan nabaria da Erriberriko fraideek lanik franko egin zutela, Iruñetik beherako eta Erriberako hamazortzi herritan.

Urte hauetako mapa zabal horrek poliki erakusten dizkigu Arantzazuko Santutegiaren leku eta esanahia, mota hauetako prediku-jardunean; baina Santutegiak berak bere kabuz eta gisara besarkatutako lurralde-eremuaz ere zerbait esan beharra dago.

3.3. HERRI-MISIOEN LORALDIA (1944-1967)

Iturri eta datuek duten konplexutasunagatik, zaila da hemen XX. mendeko Arantzazuko predikaritzaren balantze orokor zehatza egitea (hau da, mende osokoa eta alor ezberdinetakoa); aurreko lerroetan adierazi da beste Komentuen artean izan zuen lekua, baina ez dugu geratu nahi eskueran ditugun zehaztasun osagarri batzuk (berriz ere Misioei dagozkienak batik bat) hona ekarri gabe. Dena den, komeniko da horren aurretik herrietako “Misioak” zer izan ziren jakiteko argibideren bat ematea.

3.3.1. Herri-Misioa zer zen?

“Herri-Misioa” zer zen eta zein xede zituen jakiteko, frantziskotarren agiri ofizial bat erabil dezakegu, gutxienez 1920tik aurrera indarrean egon zena, eta aurreko hamarkadetako esperientziaz onduta: “Directorio de Misiones” deitua (Bergara, 1920). Begira zer dioen bere lehen pasartean²²:

La palabra Misión [...] quiere decir una serie de sermones, instrucciones y pláticas que se predicán, durante varios días seguidos, al pueblo fiel, y que, junto con otros ejercicios de piedad, tienen a éste santamente ocupado en cosas tocantes a la salvación del alma y al servicio de Dios Nuestro Señor.

Antiguamente duraban las Misiones dos, tres y hasta cuatro semanas, pero hoy no suelen pasar de ocho, nueve o, a lo más, diez días.

Ohartzekoa da, adierazten duen helburuarekin batera, Misioaren iraupenari dagokiona: XVIII-XIX. mendeetako eraketa luzeak mugatuta daude jada XX. mendeko lehen hamarkadetan, beranduago gabe. Aldaketa hori —eta funtsezkoa dirudi— ez zen izan, ba, XX. mendeko berritasuna²³.

Misioetako mezua eta ideiak, Kontzilio-aurreko molde klasikoan, nondik nora zihozzen ezagutzeko ere balio lezake liburuxka bereko pasarte luzeago honek²⁴:

²⁰ Herri euskaldunetan, etorkinen taldea gora zihozalarik, ondoko arau hau zegoen aholkatuta 1920ko “Directorio” deritzanean: “Nota.—En los pueblos de la región vasca donde haya núcleos importantes de gente que no entienda el vascuence es corriente entre nuestros Misioneros predicar algunos sermones o, siquiera, instrucciones y pláticas, en castellano. Es una práctica muy laudable y que produce excelentes resultados”.

²¹ Id. 171. Hemen ageri den zerrendako “Alcaniz” horrek *Antz* izan behar du, izan ere zerrendak herri hau ez du aipatzen, baina jakin badakigu, gutxienez 1955ean misio bat izan zuela bertan Arantzazutik joanda M. Inurritegik; bestalde, dakigunez, Nafarroan ez dago Alcaniz-ik, herri eta auzoen artean.

²² PROVINCIA SERAFICA DE CANTABRIA (1920): *Directorio de Misiones*. Vergara: Tip. del “Santísimo Rosario”, 3. or.

²³ “Directorio de Misiones” horrek dioena berretsiz, L. Basabek zera dio (*Homenaje* 1935: 147): “La segunda generación después de restaurada la Provincia, o sea, Los Padres Misioneros posteriores al P. Estarta [†1878], como fueron los P. Epelde, Arrúe, Buertel, etc., redujeron las Misiones a diez días, sin contar la función de ánimas que se celebraba al día siguiente de terminarse la Santa Misión”.

²⁴ Directorio 1920: 13-14.

De qué se ha de predicar en la Misión. — *Los sermones, instrucciones y pláticas de Misión no han de tener por objeto verdades aisladas, sino que deben formar un sistema completo, donde sosteniéndose unas a otras y prestándose mutua fuerza las grandes verdades de la Religión, vengan éstas a hacer veces como de un cuerpo de ejército bien ordenado y dispuesto a dar el asalto al pecador y vencer la resistencia de las pasiones.*

Por eso, lo más corriente entre los Misioneros es tratar:

a) de la importancia de la Misión y de oír la palabra divina, del fin del hombre y de la salvación;

b) de la muerte, juicio particular y universal, eternidad, infierno, gloria;

c) del pecado mortal, escándalo, pecados públicos;

d) de la blasfemia, calumnia, murmuración, lujuria, inmodestia en el vestir, profanación de las fiestas;

e) riquezas mal adquiridas, usura, mala conciencia, malas compañías;

f) misericordia divina, penitencia, confesión (examen, dolor, integridad, vergüenza mal entendida, propósito, confesión general);

g) educación de los hijos, amor a los padres, perdón de las injurias, amor de Dios y del prójimo;

h) oración, huir de las ocasiones, comunión, frecuencia de los sacramentos, Pasión de Jesús, devoción a la Virgen Santísima y a los Santos, perseverancia, etc., etc.

Kristautasunaren ikuskera jakin bat ispilatzen du gai-zerrenda honek, Moralari oso begira zegoena, neurri handi batean indibidualista, etab. Gai-zerrenda hau izan zen 1960 inguruan krisian sartu zena; baina frantziskotarren Misio-historia beronek markatu zuen funtsean XX. mendeko Euskal Herrian, nahiz eta sermolari-talde bakoitzak askatasunik ere bazuen zerbait aldatzeko (kendu, sartu, osatu).

Helburu eta doktrina-lanabes horrekin egin zuten lan Arantzazuko sermolariek ere Herri-Misio haietan.

3. 3. 2. Misio-urte emankorrenak (1944-1984)

Eskura ditugun datuen arabera, berrogei/berrogeita bat urtetan (1944-1984) 176 misio eman zituz-

ten Arantzazuko sermolari misiolariak. Lehenago, gerra-aurreko zenbakiak oso apalak izan ziren, eta garaiko sermolari finenak ez ziren, nonbait, molde honetako predikura sobera eman, kronikariak datuak ezkutatu ez badizkigu behinik behin. 1930.etakoa hamarkadako urterik altuenean lau misio eman ziren (1935), eta kasu honetan Goetzainaren Misio-dei eta plangintza orokorrean parte hartuz, hain zuzen²⁵. Ondoko historiaz esango da hemen zertxobait.

Misioek beren antola-arauak zituzten, baita misiolari-taldeak edo bikoteak osatzeko usadioak ere. Horrela, Santutegiak, adibidez, predikariren bat bidaliz hartu ohi zuen parte Herri-Misioetan (sarri bikote-laguna beste komenturen batetik zetorrela). Hainbatetan lagun bat baino gehiago ere joan zitekeen Arantzazutik hautatutako herrira: bi misiolari (42 Misiotan), hiru (2) edo lau (2).

1944an bi herritan eman ziren Misioak, eta ondoko urteetan gora egin zuen lan honek, gehiengotan 6-8ren arteko kopuruarekin 1961eraino; kopuruz handienak 1954 eta 1963 izan ziren, hamaikana Misioekin. Hala ere, berehalako urteetan ez zuen horrek izan segida bera. Ezustean etorri zen espe-ro ez zen beheraldia, hain zuzen frantziskotarretan Herri-Misioei antolamendu eginagoa eman nahi izan zitzaaien uneko biharamunean.

1960.etakoa hamarkada izan zen Herri-Misioen prediku-moldeak (gutxienez XVIII. mendetik zeterrenak) lur jo zuen unea. Arantzazun –kanpotik Aita Kerexetaren laguntzarekin– fraide bakarra izango da horri, bere molde zaharrean, jarraipena ematen ahalegindu zena (Luis Esnal: 1970-1984). Gainerakoan, Misio-jarduerak Gogo-Jardun berrituei utzi zien lekua²⁶.

3.3.3. Herriz herri predikuan

Misioetara bakarrik mugatuz, 1944-1984.etakoa Arantzazuko zerbitzu honek gutxienez 93 Misioaldi eskaini ditu euskal herrietan (gorago esan dugu zerbait Probintzia frantziskotar osoko erlijio-soen ekarpenaz) Kronikatik landu dugun estatistikaren arabera. Esan beharra dago urte-zerrenda horren barruan Euskal Herrian emandako azkenekoa Nafarroako Arribekoa izan zela, 1983an (Esnal).

Nola banatu zen lan hau Hegoaldeko herrialde ezberdinetan? Identifikatu ditugunak honela ageri

²⁵ Kronika IV: 294.

²⁶ Urtez urte hauek dira estatistikak Arantzazun: 1944: 2 Misio; 1945: 6; 1946: 5; 1947: 4; 1948: 6; 1949: 6; 1950: 7; 1951: 8; 1952: 7; 1953: 9; 1954: 11; 1955: 7; 1956: 6; 1957: 8; 1958: 7; 1959: 4; 1960: 6; 1961: 9; 1962: 5; 1963: 11; 1964: 5; 1965: 6; 1966: 4; 1967: 3; 1968: 0; 1969: 1; 1970: 1; 1971: 1; 1972: 3; 1973: 3; 1974: 3; 1975: 2; 1976: 2; 1977: 1; 1978: 2; 1979: 1; 1980: 1; 1981: 1; 1982: 1; 1983: 1; 1984: 1. Hemengo kopuruetan Euskal Herrian eta kanpoan emandakoak jasotzen dira, herriz identifikatuak eta gabeak, eta zalantza informatiboren bat dutenak ere.

dira barreiatuta herrialdeka: Gipuzkoan 42 herritan eman zuen misioeren bat Arantzazuko fraideren batek, batzuetan behin baino gehiagotan. Bizkaian, ostera, 12 herritan, eta Araban 4tan, Aramaio euskalduna barne noski. Nafarroak herri-kopuru erlatiboki handia du zerrenda honetan, 33. Euskal Herrikerik erbestean hogeiren bat Misio eskaini ziren, eta identifikatu gabeko bizpahiru ere baditugu.

Gipuzkoan, denean daude presente, baina trinkoagoa da hori Debaldean, alboko Eibar edo Elgeta ahanzi gabe, edo Goierrin, Legazpitik hasi eta Legorreta nahiz Zegamaraino; Donotialdean, hirira eta inguruko zenbait herritaraino iristen zen Arantzazuko fraidea, Astigarraga eta Hernanitik hasita. Hutsune bat dago hemen nabaria, Tolosaldea, nahiz eta Alkiza edo Berastegi bederen hor dauden. Segur aski, parrokietako deiak Tolosako komentura zuzentzen ziren, eta bertako nahiz Zarautz hurbilagoko komentuetatik erantzuten zitzairen Tolosaldeko eskeei (Garate edo Peñagarikano tarteko zirela ziurki).

Nafarroako Arantzazu-zaletasuna deigarria da hemen, lehenago beste testuinguru batean ikusi dugun bezala. 1944-1984.etan Nafarroa euskalduna da frantziskotarren Misio-lantegia (Erriberako salbuespen bakar batekin: Kaparroso), Sakanatik Baztaneraino; Aezkoara ere luzatu zen eremu nafar hau.

Itxura guttiz, Bizkaiko lana bertako komentuen izan zen, gehienez ere Arantzazutik laguntzaren bat edo beste jasoz, izan ere euskalkiak ahal zelarik fraide bizkaitarrak eskatzen zituen. Honelako bizkaitar euskaldunik egon da, ordea, Santutegiko predikarien artean (J. Zubieta), eta Santutegiko giputzen batek ere eskaini zuen lankidetzarik Bizkaian (Garmendia), Ondarroa hurbilari euskalki-arloan itzal gutxiago zitzaion bitartean (geraondoko urte luzetan parrokoa zegamarra izan zen han, Pedro Arakama). Enkartazioetan, lehen ikusitakoak errepikatzen zaigu orain ere: Balmaseda, Guenes.

Arabako lau Misioak han-hemen emanak izan ziren, oso bakanak: Labraza eta Eltziego behealdean, Dallo eta Aramaio iparraldean.

Herrietako Misio-ekimen hauek ez ziren modu berean gertatu beti: Hiriburuetan, Donostia eta Bilbon egin zuten lan frantziskotarrek, baina ez Gasteiz, Iruñea edo Baionan (artean ez zuten hauetan komenturik). Iruñean kaputxinoak ziren nagusi, eta beraien kontu joan zen 1954ko Misio handia. Probintzia barnean, batzuetan herri handi osoa zen Misioak hartu zuena (Eibar edo Hernaniren kasuak); bestetan, ostera, halako herrietako auzoren bat (Bergara, Eskoriatza edo Deban: hurrenez hu-

rren Labe Garaiak, edo Bolibar eta Itziar-Lasturko auzoak, esaterako).

Hemen estatistikoki aintzakotzat hartu ditugun lehenengo hiru urteetan (1944-1946) Gipuzkoan egin zuten lan Santutegiko fraideek, 1947an Goizueta izan zen epealdi aztertu honetako lehen herri nafarra, eta urtebete geroago Errigoiti Bizkaian, eta 1949an ageri da lehen herri arabarra: Aramaio. Hortik aurrera herrialde bateko nahiz besteko herriak nahasian datoz, Elizondo nafarraren ondoren Labraza (1952), Ondarroaren ondoan Albiztur (1953), Antzuola Guenesekin (1960), Luzaide Arantzazuko Auzoarekin (1961), Ibarrangelu Mendataren ondoan (1966), etab., guztiari bi herri nafarrekin (Arribe eta Sunbilla) eta Santanderko batekin amaiera emanez (Soto de la Marina).

Hau izan da, lerro nagusietan, Arantzazutik egindako Misio-lana. Galdetzekoa da, ordea, norzuk izan ziren historia honetako eginbeharra beren bizkar eraman zutenak?

3.4. ARANTZAZUKO SERMOLARI MISIOLARIAK

Jada esan dugu XIX. mendeko izanberrikuntza- ren ondoren fraideen artean ez dela egon juridikoki eta arautegien arabera predikari titulurik eman izan zaionik, garai batean izan ohi zen moldera behintzat; era berean, Misiolari-Kolegiorik ere ez dela egon, Esklaustrazio-aurretik izan zen bezala, baizik eta fraide apaiz guztiek pasa izan dutela predikaritarako azterketa eta lortu horretarako baime- na ere.

Hala ere, Kontzilio aurrean batik bat, ez dira denak gisa berean predikari eta gutxiago misiolari bilakatu. Horretan zeresan handia izan dute norberaren gaitasun, prestakuntza, hautapen eta borondateak. Adiera honetan, bada, esan beharra dago gutxi batzuk izan direla XX.ean ere "predikariak" edo "misiolariak".

Juridikoki esanahi berezirik izan ez arren, XX. mendean "predikaritz" lanbidearekin gehienetan egon izan da komentuetan norbait edo beste. Arantzazun ere hori ageri da Anaiarteko berri eman ohi zuten urteroko fraide-zerrendetan, batzuetan "komentutarra" izendapenez mozorroturik.

Hasteko, komentu izanberrituko lehen orduetan, lehenagoko fraide predikari sonatuak daukagu Arantzazun (1881), J. J. Salazar (1805-1882) horien artean²⁷. Predikari-tradizio indarberrituaren arrakasta-sinboloa izan daiteke Aita D. Baertel, Kronikako lehen albisteen arabera, 1920an Oñatiko Bidaurretan zegoena.

²⁷ Ik. *Libro de la Provincia*, 12-13. or.

Dena den, badirudi gerra-aurrean Arantzazura ez zela bildu predikari-talde azkarrik, nahiz eta gerra-bezperan –esan dugu– Misioetarako adinako lagunarterik bazegoen²⁸. Gerraostean indarririk franko hartu zuen, ordea, zerbitzu horrek, baina ez talde handirik sortu zelako, zeuden sermolari prestu gutxi haiek gaitasun eta gogo bizia erakutsi zituztelako baizik.

Berrogeita bat urtetan (1944-1984) zenbatu ahal izan ditugun Arantzazuko komentuko herri-misiolariak 22 dira, beti edo denbora batez Santutegitik lan egin dutenak. Askok eta askok, gero Santutegia uztean, beste komentuetatik lan egin zuen Misio horietan. Beste nolabait esanda, Arantzazun egon da bertara baino lehen edo ondoren, Misio hauetan parte hartu duenik, nahiz eta, bistan da, beste lekutatik egindakoaz Santutegiko Kronikak ez eman berririk.

Dagoeneko iradoki ditugun arrazoiengatik, bakoitzaren ekarpena tamaina ezberdinekoa izan da. Misiotan arantzazuarrena, eta emankorrena ere, Demetrio Garmendia gertatu zen: Kronikak Aita Demetrioren 54 Misioaldiren albistea jaso du.

Demetrio Garmendia Otegi (1908-1999) Berrobiko semea zen (Gipuzkoa); 1926an hartu zuen abitu frantziskotarra, eta 1934an egin zen apaiz. Fraide honen soslai erlijiosoa batez ere predikariarena izan da. Euskaltzale fina, idatzi ere egin zuen²⁹, eta herritar askoren oroimenean bere etorri bizi eta herritarragatik geratu da bizirik Garmendia.

Gerra-aurretik apaiztua zenez, eta gerraostean Misiotan ondoan izango zituenak baino hamar-hamabosten bat urte zaharragoa izanik, Demetrio izan zen denen artean lehen aitaponteko eskarmentatua. Hainbat lagunekin bikotea osatzen zuela egin zuen lan Herri-Misioetan (lehen urteetan, J. Olaizolarekin), baina 1945-1953.etan Agirretxekin berezikiago. Lehen predikuak gerra-aurrean edo gerratean bertan egin ondoren (azpimarratzekoa da orduan Bizkaiko egonaldia), beranduenik 1942tik aurrera Arantzazun bizi izan zen, harik eta Arrasateko komentu izanberrituaren ardura eman zitzaion arte (1954). Han bizi arren, Arantzazuko Andre Mariaren herriz herriko ibilaldian (1956) berea izan zen ahots entzunenetako bat. 1958an Santutegiko Aita Goardiano izendatu zuten, eta bertako agintaldia bukatzean (1961) Arrasatera itzuli zen. Geroztik han eman zuen bizitza osoa, hil zen arte.

Dakigunez, Aita Demetrio Garmendia da bere Herri-Misioetako egunez eguneko albistek utzi

dizkigun frantziskotar predikari bakarra (1941-1995)³⁰. Hemen, Arantzazukora mugatuz, eta Santutegiko iturrietan Kronikara, esan dezagun Santutegitik Garmendiak emandako Misioetan 45 herri zenbatu ahal izan dizkiogula. Sarrienik Agirretxe izan zuen Arantzazuko laguna, baina K. Gastesi, J. Alustiza, M. Inurritegi, F. Agirre eta besterik ez zitzaion falta izan. Arantzazutik egindakoaz gain, Garmendiaren kasuak badu interes orokorragori ere, XX. mendearen erdialdeko adibide on bat baita:

Mende-erdi pasea bete zuen Misioetako predikaritzan Aita Demetriok (1941-1996). Kontzilio-aurrea eta ondorena bere indar betean zelarik eza-gutu zituen, eta bi aldietan egin zuen lan, nahiz eta azken aldi honetan osasunak ez zion sobera lagundu. Aipatutako egunkari pertsonal hartatik ez dugu dena bildu, berak “Misio” eta “Gogo-Jardunak” bezala emandakoak bakarrik baizik.

— 68 herritan eman zituen Misioak eta Gogo-Jardunak. Askotan, gainera, ez behin bakarrik. Herrialdeka ondoko hau da ageri dena: Gipuzkoan 48 herritan egon zen, Nafarroan 10etan, Bizkaian 9tan, Araban batean.

— Gogo-Jardun ugari eman zuen: 83 txanda (gehienak Arantzazun: 66, eta 17 beste tokitan).

— Herri-Misioak ugariagoak izan ziren oraindik: 107. Horietako 1 Araban, 10 Bizkaian, 18 Nafarroan eta 77 Gipuzkoan. Zifra orokor horiei Soraluezko auzo batean (San Ignazio, 1963-1996) urtero emandako Misioak gehitu behar zaizkie.

Esan bezala, hainbat lagun ezberdin izan zuen Garmendiak bere ibilera horretan: hasieran Aita J. Olaizola (†1948), berehala eta maiz E. Agirretxe (1946...), Bizkai aldean Aita Sabin Zubieta, eta nonahi beste sermolari ezagun zenbait: J. Lasa, S. Mitxelena, Z. Zabala, K. Gastesi, J. Alustiza, P. Penagarikano, M. Inurritegi, J. Arabaolaza, J. Zubieta F. Altube, etab.

Baina berak bakarrik emandako Misio eta Gogo-Jardunak ere ez ziren gutxi izan, eta hain zuzen lehenengo eman zuena bakarrik eman zuen Itziarko Lasturren (1941), baita, esateko, Eibarko Misio handian Arraten eman zuena ere (1953).

Emanaldi-kopuruz urterik altuenak 1948-1951.ak izan zituen: 11 Misio eta Gogo-Jardun (1948), 13 (1949), 12 (12 (1950), 14 (1951)). Berehalako urteetan, 1950.etan, goitik ibili zen Garmendiaren lana. 1962tik aitzina, tartean bihotzekoak eman ziolako

²⁸ Ik. Homenaje 1935: 155.

²⁹ Kazetari-lana egin zuen batik bat (*Arantzazu*, *Goiz-Argia*, etab.), eta liburutan, berriz, hemen berezikiago gogoraratzekoa da: GARMENDIA, D. (1969): *Arantzazu*. Arantzazu: EFA.

³⁰ *Itzaldien* agiria deitu zuen berak emandako mintzaldien kaier-egutegi hau. Arrasateko komentuan gordeta dago, eta hil baino hilabete batzuk lehenago fotokopiatzeko utzi zion berori J. Intxaustiari, elkarrizketa bat jasotzera joan zitzaionean.

ere bai, urtean behingo Misioren batera mugatu zen.

Alor honetan analisi orokorrek diotena berretsiz, Garmendiaren goraldia ere bat dator, bete-betean, Herri-Misioen loraldi orokorreakin.

Eujenio Agirretxe izan zen Santutegiko beste predikari enblematikoa. Errezilen sortua (1920), 22 Misioaldi eman zituen Arantzazutik (1945-1953: dakigunez, lehenengoa Garmendiarekin Arantzazun bertan, eta azkena Eibarren). Ondoren, noski, beste komentuetatik egin zuen lan Herri-Misioetan.

K. Gastesi ere gogoratzekoa da (1915-1994). Aita Gastesiren lana batez ere Gogo-Jardunena izan zen, eta Gogartetxeaz hemen bertan daukagun idazlanean ikus daiteke horren berri; dena den, Gogartetxeoaz aparte, herrietako Gogo-Jardun irekiak ere ezin dira ahanzi. Herri-Misioetan 9 kontatu ahal izan dizkiogu Kronikan.

Julian Alustiza (Gabiriako Aztirin jaioa, 1913), eta gerrarekin batera apaiz eginik (1936), Gaztelan eman zituen lehen urteak (1936-1943: Burgos, Soria, Valladolid); Euskal Herriratu eta Erriberri (1943-1949), Bilbo (1949-1952), Tolosa (1952-1955) eta Arantzazun (1955-1958, 1962-2000...) eman ditu bere egonaldiak. Euskal olerkari eta prosista³¹, predikari elebiduna izan da. Arantzazutik ia beti euskaraz egin du lan, eta 24 Misioaldi zenbatu dizkiogu, hemendik emandakoak, asko Nafarroa euskalduneari (18); frantziskotarretan beste inor baino areago, nafarren predikaria izan da J. Alustiza, lehenengo Erriberriko komentutik Erriberan (gaztelaniaz), eta gero, Arantzazutik hango Mendialdean, euskaraz. Besteak beste, Arantzazutik bertatik, Garmendia, Arabaolaza, I. Alustiza eta Garaialde izan zituen Misioaldi lagunak.

Kopuruz, Santutegian hurrena datorrena Aita Joan Arabaolaza oñatiarra dugu (1925-1988). Arabaolaza 1951n apaiztu zen, jada Misioak beren indar betean zeudenean, eta hurrengo hamar-hamabost urteetan fraide-apaiz gazteak izandako arrakasta frantziskotarren eta hainbat herritarren oroimenean geratu da. Gogo-Jardunetan bezala Misioetan entzuleen artean erakarmen azkarra izan zuen, batez ere emakumezkoen eta nesken artean. Arantzazun bizi izan zen 1951-1963.etan, eta 19 Misio zenbatu dizkiogu Santutegitik emandakoak, Gipuzkoan eta Nafarroan lekutuak; Gogo-Jardunen lana ere gogoan hartu behar zaio.

Bere Misio-kopuruz (17) hurrena datorrena M. Inñuritegi da (Oñati: j. 1925). Arabaolazarekin batera apaiztu zen (1951), eta Hirugarren Ordenaren barruti-arduradun zen bitartean eman zituen Aran-

tzazutik Misioak (1952-1957), frantziskotarrek ibilienak zituzten herrietan, Nafarroan eta Gipuzkoan batez ere.

Bizpahiru izen gelditzen zaizkigu aipatzeko, Kronikaren araberrako kopuruekin gogoratzekoak: F. Agirre (Azpeitia-Aratzerreka, 1927), 10 Misio aipaturekin; Ildefonso Alustiza (Zerain, 1932) 9ekin, J. M. Eizagirre eta J. Zubieta Snarekin, P. Aranguren 7ekin. Azkenik, Arantzazutik banakaren bat edo beste emandakoak daude: J. A. Etxeberria (3), F. Altube, J. A. de Eulate, J. A. Astigarraga, J. M. Garaialde, I. Omaetxebria, A. Uberuaga, K. Zubizarreta.

Bukatzeko, Aita L. Esnal-en (Andoain, 1918) jarduera aipagarria da, Herri-Misioak kasik edo guttiz desagertu zirenean bere biderei eutsi ziolako. Esan dugu zerbait, baina gehitu dezagun bere datua: gutxienez, 24 Misioaldi eman zituen, batzuetan Aita A. Kerexeta lagun zuela (†1993).

Kronikak, noski, dituen hutsune eta zenbait iluntasunekin, ez die misio-predikari hauei justizia osoa egiten; baina Santutegiko jarduera-molde honen lekuko zabala da bere datu ugariekin, nahiz eta ez den albiste-iturri erabat osoa, ez Santutegitik egindakoa deskribatzean, eta gutxiago hemendik kanpoko bizialdietako predikari bakoitzarenean.

Ikerlan hoberik datorren bitartean, bego hau oraingoz, lehen aurkezpen gisara.

4. AZTERTUA, AZTERTZEKOAK

Beste alorretan bezala, predikuarenean ere Santutegia Probintzia Erlijiosoko Etxea izan da, nahi den bezain berezia baina haren komentu-sarean sartua. Horren arabera, Probintziako pertsonalaren harat-honatean hartua. Horregatik, inguruetarako predikuaren pastoralala ez da Santutegitik bakarrik erabaki eta egitarautu. Ondorioz, komentuek elkarri lagundu izan diote, batez ere Misio eta Gogo-Jardunen lana denak batera edo egiten (derrigorrez plangintza orokor baten barnean ez izan arren).

Arantzazun, ba, ez da sermolari-talde handirik izan, ezta Santutegiari zegokiokeen plangintza isolaturik ere.

Ohiko sermoi-lan zikliko arrunta batez ere inguru hurbilean egin izan da (Aste Santukoa, Andre Mariaren Jai handietakoa, Santuen Jaietakoa, etab.). Zerbait zabalagoak izan dira Abenduetako prediku bereziagoak, eta batez ere Garizumako predikueriatuak (hirurren eta antzekoak); baina bereziki lurrean zabala hartu izan dutenak Misioak eta Gogo-Jardunak izan dira.

³¹ Ikus, adibidez, argitaragabeko *Idazlantxoak* (Arantzazuko Bibliotekan), eta *Liboaren penak eta nekeak* (Arantzazu, 1981), eta *Euskal baserriaren inguruan* (Arantzazu, 1985).

Labur beharrez, orrialde hauek ez dute hartu ahal izan Santutegiko prediku-lan osoa. Batez ere, ohiko prediku arrunta da albora geratu dena, eta Kontzilio-ondoan etorri diren aldakuntzek leku eskasa izan dute orrialde hauetan. Horregatik, iganderoko sermoiak eta Gogo-Jardunak berak ere ia osorik kanpoan gelditu dira hemendik (ik., hala ere, liburuan azken hauei dagokien kapitulu nagusi bat Gogartetxeari eskainitako idazlanean).

Data seinalatuetan zein motatako prediku-irteerak eratu izan diren jakin nahi duenik egongo da, agian, irakurleen artean. Prediku-historiaren alde esanahitsua da hau ere, baina ez gara iritsi oraindik sermolaritza-mota horren zenbaketa estatistiko ongi landurik biltzera.

XX. mendeko misiolari frantziskotarra "Arantzazuko prailea" izan da gure euskal herritarren ahotan, hau da, betiere Santutegitik zetorrela uste zen norbait. Deskribatu dugun bideetatik egin du lan, baina baita unean uneko ekitaldi jendetsu handietan ere: 1950-1960.etak (eta geroago gure egunak arte) sonatuak izan ziren "Arantzazurako Igoera" haietan.

Zenbait urtetako Gogo-Jardunen (1952-1963) eta zabalago Herri-Misioen (1944-1984) zenbaketa batzuk eskaini ditugu, baina Misio-zereginen analisiak batez ere koalitatiboa izan beharko luke. Guk ez dugu hemen horretaz deus aurkeztu. Segurki, Herri-Misioen hau azterlan ederragoetarako gaia da, denbora eta gogoia jarri beharko dituen ikerztailerentzako ikergai oparoa. Arantzazuko datuek ere erakusten dute hori.

XX. mendeko azken laurdenean prediku-lanak alde kateketiko eta hezitzailea hobetsi du bere bidetzat, bihotz-eragipenaren bidea baino. Bertatik bertara, pertsonaltasun hertsia goan eta talde txikiagotan zabaltzen da orain Hitza, betiere elkarrizketarako aukera hurbilagoa emanez. Neurri batean da hori berria, baina indarberritu eta erlatiboki oso gora egin du horrek, beste zenbait lanbide itzaliz joan den aldi berean.

Hitzaren eta herritarren zerbitzuko predikuaz esan ahal izan ditugun ez dute gaia agortu, ezta hurrik eman ere, eta guztia hautatu eta erabili ditugun neurrien barruan ulertu behar da. Muga guztion barnean ulertu behar da idazlan hau.